

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

**HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Ekitaldi instituzionalak eta musika izango dira 2018ko Nafarroaren Eguneko ospakizuneko protagonistak

Gayarre Antzokian ospatuko den Nazioen Jaialdirako doako gonbidapenak gaurtik aurrera (ostirala) banatuko dira

Larunbata, 2018.eko abenduak 1

Musika-kontzertuak eta ekitaldi instituzionalak izango dira Gobernuak Nafarroaren Eguna dela eta antolatutako ospakizunen protagonista. Barkos Lehendakaria izango da Nafarroako Erresumari egingo zaion omenaldiaren buru, Nafarroako Errege Artxibo Nagusiaren parean (Iruñeko Nafarroako erregeen jauregi zaharra); ondoren, Nafarroako Urrezko Domina emango dio Saray Bularreko Minbiziaren Nafarroako Elkarteari.



Saray elkarteko kideak irudian, astelehenean Nafarroako Urrezko Domina jasoko dutenak.

Kultura-ekitaldien programaren barnean ia ehun kontzertu izango dira abesbatza eta musika-banden eskutik, eta bai Nazioen Jaialdia ere, doakoa. Azken horretarako, Gayarre Antzokiko leihatiletan jaso ahalko dira gonbidapenak.

Lehen ekitaldi instituzionala abenduaren 3an ospatuko da, astelehenez, goizeko 11:15etan, Nafarroako Artxibo Nagusiaren kanpoaldean. Barkos Lehendakariarekin batera izango dira bertan Ainhoa Aznárez Parlamentuko lehendakaria eta merindadeetako hiri nagusietako alkateak (Iruña, Tuter, Lizarra, Zangoza eta Erriberri). Lore-eskaintza egingo diote Nafarroako Erresumari, egungo Nafarroaren sustrai den heinean, haren omenez eraikitako monolitoan. Ekitaldia irekia izango da eta gaiteroek parte hartuko dute bertan, bost merindadeetako eta Nafarroa Behereko dantzarien taldeekin batekin batera.

Barkos Lehendakaria izango da, eguerdiko 12:00 etan, Nafarroako Urrezko Dominaren entregaren ekitaldi instituzionalaren buru. Saray Bularreko Minbiziaren Nafarroako Elkarteari emango zaio aurten domina. Hitzordua

Kultura, Kirol eta Gazteria Saileko klaustro isabeldarrean ospatuko da. Zangozako Nora Abesbatzaren esku egingo dira ekitaldiaren parte musikalak, Bruno Jiménezzen gidaritzapean.

Sari-ematea zuzenean emango da *streaming* bidez Nafarroako Gobernuaren youtube-ko kanalean eta aurrez grabatuta astelehen arratsaldean, Nafarroako Telebistan.

Nazioen Jaialdia

Nazioen Jaialdia ere abenduaren 3an bertan abiatuko da Gayarre Antzokian, eguerdiko 12:00etan. Egun Nafarroan bizi diren pertsonen jatorrizko kultura desberdinen erakustaldia izango da. Ostiraletik abiatuta (azaroak 30), antzokiko leihatiletan jaso ahal izango dira doako gonbidapenak.

Jaialdian zortzi talde folkloriko izango dira, Peru, Venezuela, Bolivia, Bulgaria, Ukraina eta Ginea Konakryko elkarteetakoak, eta baita Nabda Kultura Elkartea Arabiarrekoak eta Afrikako Flora Elkartekoak, Ginea Bissau, Liberia, Ginea Konakry, Mali, Boli Kosta, Ghana eta Saharako emakumeak biltzen dituztenak. Pilar Chozasek zuzenduko du ikuskizuna.

Aldi bereko 92 kontzertu

Eguerdiko 13:00etan 92 kontzertu ospatuko dira aldi berean [Nafarroako 92 herri desberdinetan](#), Nafarroako Foru Komunitateko abesbatzen eta musika-banden eskutik. Nafarroako ereserkia joz hasiko dira eta programa espezifikoekin jarraituko dute gero. 3.700 artista baino gehiagok hartuko dute parte Nafarroako geografia osoko herrietan programatutako ekitaldietan, eta denetan izango da sarrera libre.

Arratsaldez ja, Nafarroako Orkestra Sinfonikoa, Iruñeko Ganbara Abesbatza eta Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko Orkestra batuko dira Nafarroaren Eguneko kontzertua eskaintzeko, Baluarte Areto Nagusian arratsaldeko 19:00etan. Remacha, Laserna, Mozart eta Shostakivich-en lanak interpretatuko dituzte.

2018 NAFARROAREN EGUNA DIA DE NAVARRA

Abenduaren 3 de diciembre Astelehena / Lunes 13:00
Duska Sarrera / Entrada gratis

KONTZERTUAK CONCIERTOS

Nafarroako Gobernua Gobierno de Navarra

Astelehenean 13tan Nafarroako 93 herri-entzun ahalko diren kontzertuen zerrenda.